

## Baigorri

Crédit Agricole bankuaren biltzar nagusia

Garazirekin aldizka egiten da



Denis Vincent, Crédit Agricole-ko txekoa eskuratzean

Crédit Agricole banketxearen biltzar nagusia, Baigorriin egin da aurten Plaza Xokon. Jende ainitz bildu da Jean-François Tambourin lehendakaria eta bere kontseiluaren inguruan, usaia hartua baita orain biltzerra ondotik, eskualdeari doakion gai funtsezko bat aztertzea. Ez ohizko eta ohizko biltzar nagusiak iragan dira lehen parte batean. Bata, estatutuetan sei artikulu kanbiatzeko, berteza urteko gorabeheren berri emateko, hemen agertuz lekuko bizia egiten duenaren arrangura eta obra kolektiboan laguntzeko borondatea laborantzan, ofizialetan, zerbitzu publiko eta elkarteetan. Ondotik, adineko jendeeri buruzko zerbitzuak aipatu dira Pantxika Maitiak kudeatu mahain inguruan. Ikusiz alde hantun, gaurregun, jendetzaren % 33a 60 urtez goitikoa dela bai eta gero eta gehiago xahartuko girela, errealitate hau gizartearen arazo haundia bilakatzen ari da bai ekonomia eta bai sozial aldetik. Kanaldudek egin filmarekin, erakutsi da bi familietan xaharren eguneroko bizia. P. Iralour (Eskuz esku), G. Carricart erizaina eta A. Sallaberry CIAS-eko koordinatzaileak eman argitasunekin, alderdi ainitzetarik jorratu da gaia. Nola xahartu, nun egon, nola ibil, dependentzia, nor ordaindu behar, zer zerbitzu etxetan, zer laguntza, nola presta xahartzea beretzat eta bertzetzat, nola balia xaharren esperientzia aberasgarria. Horiek konduhan harturik, herri elkargoak 2010eko maiatzaren lehenetik lekuan emana du CIAS (Centre intercommunal d'action sociale) zerbitzu publikoa, deneri berdin argitasun eta laguntza ekartzeko. Bertan alde, penatsatuz norabide hau lan iturri bilakatuko dela, Frantsesena laborantza lizeoko Cécile Crouspeyre lehendakariak ere erran du nola « Services aux personnes et aux territoires » formakuntza sail berria abiatu duten. Hor eman

diren xehetasunak interes haundiz entzunak izan dira. Biltzarreko azken atala, humanitarioa zen « Kombat pour Haïti » elkartearekin. Duela urtea pasa lur ikarak egin kalteen ondorioz, beti egoera txarrean daude Haïtin. Elkarte hunen xedea da hango eta hemengo jendarteko harremanak eta lotura sozialak azkartzea. Han, xerri haragi kontserba egiteko tailer bat muntatzeko nahian dira, baserriko ekoizpenak ahalik eta hobekienik baliatzeko gisan. Jakinez ez dutela argindarrik, ez hozkailurik, ura kalitate txarrekoa eta gainera airea umi, esterilizazioa zaie gelditzen bakarrik kontserba egiteko. Proiektu hunen laguntzeko "Crédit Agricole"aren izenean, Jean-François Tambourin-ek 10 000 euroko txekoa eman dio Denis Vincent, gorago aipatu elkarteko ordezkariari.

### Sortze

Ipharraguerren, Yoan Larbi eta Emilie Cussi zorionean ditugu, Naia tipia mundura emanik. Osagarrian eta maitasunean haunditzea desiratzen diogu sortu berriari eta goresmenak aitama uroseri.

### Heriotze

Joanden asteen, bere azken pausa lekura lagundu dugu Stéphane Anderson Baigorriin sortua. Angelun bizi zen, Kanbon bakantzetxe baten mantenua egiten zuela. Supituki pausatu da 44 urtetan eta hemen, William bere aitaren ondoan ehortzia izan da. Yvette bere amari, Magalie bere biziko lagunari eta penetan den familia guziari, gure dolumin bizienak.

### Ganer huste

Duela zorbait denbora aipatua, igande huntan goizeko 8.00etatik arratsaldeko 18.00ak arte iraganen da eskola publikoak antolatu ganer huste. Jada, 85 merkatarik parte hartuko dutela segurtua dute. Izanen da zer ikus, zer mia eta zer eros, lekuan berean izanen da ere jateko eta edateko, eguna goxoki pasatzeko. Egin itzuli bat.

### Pilota

Joanden aste buruan jokatu dira Euskal Herriko txapelgoaren kondu gazteen finalak esku huska. Lohizunen, **Benjamin B** mailean X. Artiguebielle eta M. Iribarren-ek galdu 19 - 40 Itsasuren kontra. **Minimo B** mailean, A. Dutaret eta X. Oronos-ek ere galdu 25 - 40 Itsasuren kontra. Armendaritzen, **Minimo A** mailean, X. Alcasena eta X. Bascans txapeldun 40 - 32 nagusiturik Airetik 1-eri. **Cadets A** mailean, C. Christin eta N. Etcheverry txapeldun ere F. Berterreche eta D. Barreneche beren batasuneko laguneri nagusiturik 40 - 36.

### Herriarena

Trinketean jokatu da F txapelgoaren kondu b multxoko partida bat. F alde ederraren aitzinean De Ezcurra eta aldi izen T. Etcheto nagusit Inchauspe eta Paxkallarra-ri 40 - 32. Partidan elgarren bete zauden, gogor jokatuak. Horti Paxkal de Ezcurra nek eta bertzek errex buru partida. Aitzin partidaren buruz burukoketa : M. Berasateguy 40 - 29 T. Itoiz-eri, oren duen partida eginik.

### Sara

**Liburu :** Gure Saratar Antz Jakes ez da gelditzen idaztetik, baditu eginak libu-

goan, 3€80 etan.

**Oihana:** Aurtengo Sarako oihanaren programa. Ibanteliko mazelatan arbolak landatuko dituzte eta landareen emateko eginen dituzte pasabideak eta zerrakurak.

**Lur trukada:** San Inazioko aparkalekua haunditzeko, Fakettiren lurrekin eginen dute trukada, ordaindua izanen da etxe egiteko lur batekin.

**Lanak :** Portuko biribilgunea bukatu dute. San Pedro aitzinean herriko enpleatuek sartu dituzte harlauzak eta leihorraren aitzinean ere. Leihorra hor berean geldituko da, ondoko egunetan berte bat eginen dute San Pedroko aparkalekuan. Erran behar da aski leku txarrean dela eta lanjerosa orai den bezala, zeren haurrek autobusa hartzeko behar baitute biribila trebesatu. Karrika ere berritu dute ostatuen eta postaren aitzinean, Botikariotik Berri Toki liburutegi artean.

**Kontseiluko bilkura,** ortzirale arra-

tseko 8ak e gaia : buxeta

**Zabatur :** asteburuan stian iragan batur feria. tren ttikia, eta Xaretako bulegokoak ziren beren erakusterat. kontent eta zeren izigarri etorri eder baitiote hantlatzaileek.

**Korrika** Txaxoaren 27a dez iragan Sara Korrika 500 bat jada izenak dituzte. Ondotik nahian izanen edo ogitartedaria. Agian bora ederraduzue, zere gainera hobe da idubaino. Hor irabaz dezala

**Kirolak:** loia: 11 galtzaile Urruñarren 13koak 17-15 Nafak kontra. 18ko tzaille 22-16 rrak galtzaile Bruge-n kon



(Arg. J.P.)

ruak, Sarako historia, Pilota, Lezeak, Usotegiak eta berte... Orai gidaliburu bat idatzi du, 50km ibilbide diferentak (6) Saran bira bira. Itzuli horiek segituz, ikusiko dituzue Larrun, Lizuniaga, Lizarrieta, Usotegiak, Lezeak, Kaperak, 12 badira, eta berte. Sarako herri ttikiak dituen edertasun guziak ikusteko gisan. Horra liburu horren gaia. Salgai da 50 orrialdeko liburu hori Berri Toki liburutegian eta tabako bule-

**ETXEGINTZA eta OBRA GUZTI**

**64480 UZTARITZ**

**TEL : 05 59 93 00 48**

**FAX : 05 59 93 23 94**